



beste barik, errealidadea eraldatzeko



Deskonektatu zaitez konpainia elektriko handietatik

# Deskonektatu zaitetz konpainia elektriko handietatik



## GOGOETA

Energia eta, batez be, elektrikoa, oinarrizko ondasun bihurtu da gure gizartean, ia jatekoa edo ura... lako oinarrizko. Halanda be, guztionak, eskuragarriak eta demokratikoakizan beharko leukien beste ondasun batzuen antzera, gizakien beharren gainetik beren irabaziak handiagotzea helburu bakartzat daukien multinazionalen menturaren menpe dago.

Holan, esate baterako Estadu espainiarrean, bost enpresez osatutako benetako oligopolioa dogu eta honeek euren esanetara eta nahierara eukiten dabe unean uneko gobernua, neurritz gaineko prezioak hitzartzen dabez eta neurri antisozialak ezartzen. Emaitza: eredu energetiko inkontrolatua, kutsakorra, arriskutsua, zentralizatua eta xahutzaillea. Aitatutako enpreson (Iberdrola, Endesa, Gas Natural Fenosa, Eon Espainia eta Edp) azken hamar urteotako irabaziak batu ezkeru, 50.000 milioi baino gehiago izan dirala aterako jaku. Hamar urte horreetan, argiaren faktura %100 igon da Estadu espainiarrean, Europako hirugarren fakturarik garestien bihurtuz.

2012an, 1,4 milioi familiari moztu eutsen argindar-hornidura faktura ez ordaintzeagaitik. 2013an, 4 milioi lagunek jasan eban "pobrezia energetikoa" deitutakoa (oinarrizko beharrianak asetzeari begira gitxieneko energia-zerbitzuak ordaintzeko gaitasunik ez izatea).

Garrantzitsua da mobilizatu eta egoera hau salatzea, bidebakoa dalako gizabanakoakaz eta ingurumenagaz; era berean, kontrol politikoa eta subiranotasun energetikoa aldarrikatu behar doguz logika maltzur honen aurrean. Baina, gainera, aldaketan lagundu daikegu, ekonomia solidarioaren, herritarren partaidetzaren eta ingurumen-iraunkortasunaren erespideetatik beste aukera batzuk eskaintzen dabezan ekimenetan parte hartuz.

Europan, REScoop (<http://www.rescoop.eu>) deitutakoan batutako 60 kooperatiba inguruk eredu energetiko hau aldatzen laguntzen diharduan ehunka mila bazkide batzen dabez. Zeuk be bat egin daikezu eurakaz.

## ekINTZA

Energiaren gaur egungo kudeaketa ekonomikoari, ingurumen-iraunkortasunerako jasanezina danari, eta gobernuek arlo honetan daukiezan politikei gaitzespena adierazoteko, parte hartu **#deSOLbediencia kanpaina**, ondorengo web orrialdearen bitartez: <http://www.desolbediencia.org/>

Emon beste urrats bat eta **deskonektatu zaitetz konpainia elektriko handietatik**. Energia merkaturatzeko baimena dauan ekonomia solidarioko irabazi asmo bako kooperatiba bateko bazkide egin zaitkekez. 100 € baino ez da kostatzen. Hortik aurrera, gura badozu, kooperatiba horrek fakturatu deikezu argiaren faktura. Oligopolio elektrikoko multinazional bati ordaintzeari itziko zeunskio, energia barriztagarrien eskari (eta erosketa) gehiago eraginez. Honako web orrialdean egin daikezu:

<http://www.somenergia.coop/>

(14.000 bazkide Katalunian eta Estaduko gainerako probintzietan)

<http://www.zencer.es/>

(300 bazkide Andaluzian eta Estaduko gainerako probintzietan)

<http://www.goiener.com/>

(1.600 bazkide Euskadin).